

Zaintzaile arduratsua zara?

Zure txakurra era arduratsuagoan eduki dezazun, hona hemen kontuan hartu beharreko hainbat faktore:

- ▶ Txakurrek gutxienez 20 minutuko 2 edo 3 **ibilaldi behar dituzte egunero**. Hori esker, beste txakurrekin **sozializatzeko** eta **esploratzeko jokabidea** praktikatu ahalko dute, eta horrek asko aberasten ditu haien bizitzak, beste pertsona eta beste animalia batzuk beren usainarengatik ezagutzen baitituzte.
- ▶ Garrantzitsua da **elikadura mota egokia ematea**. Hori bere behar naturalak gehien errespetatzen dituen eta bere adinera, osasun-egoerara eta jarduerara egokitzen dena izango da. **Ez eman tipula, txokolatea, mahatsa edo intxaurrak jatea, toxikoak baitira.**
- ▶ **Espezie taldekoa da**; horregatik, etxean bere ohea familiako gainerako kideak egon ohi diren lekuetatik gertu izatea eskertuko du.
- ▶ **Etologoak animalien** jokabidea aztertzen duten profesionalak dira, eta zure txakurrarekiko bizikidetza hobetzen lagun diezazukete.
- ▶ Bidaiatzerakoan, gogoan izan zure **txakurra arduraz zaindu ahal izango duten egoitza baimenduak daudela.**



Txakurren bizi-itxaropena 10 eta 13 urte bitartekoa da, eta arraza zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta denbora gehiago bizi ohi dira. **Hori izango da zaintzaile gisa dituzun erantzukizunek iraungo duten denbora.**

Trebakuntza- eta jolas-saioek haien jokabidea hobeto kontrolatzea eta harremana, komunikazioa eta txakurraren garunaren garapena hobetzea ahalbidetzen dute.





Eraiki haiek behar duten etxea

**Txakurrak era arduratsuan
edukitzeagatik**



Argitaratzailea: Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioa
2025 - Idazkaritza Nagusi Teknikoa
<https://cpage.mpr.gob.es/>
NIPO en línea: 233-25-010-X
Diseinua eta maketazioa: Grupo Asis Biomedica S.L.

